



Hastear da Eskolartekoa

Otsailaren amaieran hasiko da Eskolartekoa: Gipuzkoan izango dira lehenengo saioak eta, udaberriarekin batera, beste lurraldeetan hasiko dira. Ekainean egingo da egun osoko festa-finala.

Oinak buruan eta ideiak dilindan, gazteek Euskal Herria bertsoz zipriztinduko dute aurten ere. Lurraldez lurralde, bertsoa txoko txiki eta handietara iritsiko da, gazteen ezarrietatik belarrietara.

32. aldia izango du Eskolartekoak aurtengoa. Idatzizko zein bat-bateko txapelketak egingo dira oraingoan ere eta, azken urteetako ereduari jarraiki, lurralde guztietan modu bateratuan egingo da. Ikastolen Elkartek eta Bertsozale Elkartek gauzatzen dute elkarlanean bat-bateko egitasmoa eta 15-18 urteko gazteek hartzen dute parte.

Bat-batekoari dagokionez, hilabeteetako ibilbidea egin eta gero, Euskal Herriko Eskolartekoaren jaia egingo da, ekainaren 13an, Bizkaian.

Bertan parte hartuko dute aurretik lurraldez lurraldeko eskolartekoetan kantatu duten parte hartzaileek, kasu gehienetan, probintziako bina ordezkariak.

Haraino iritsi orduko, ordea, lurraldeetan abiatuko du ibilbidea Eskolartekoak. Hilabete honetan hasiko da, otsailaren 28an, Gipuzkoan. Hiru kanporaketa egin eta gero, Lasturren bukatuko da apirilaren 3an. Nafarroan ere apirilean izango da Eskolartekoa: apirilaren 24an, zehazki.

Maiatza heltzearekin hainbat lurraldetako gazteek izango dituzte eskolarteko saioak. Maiatzaren 24a izango da Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako gazteek egutegian biribildu beharreko eguna; ltsasu bihurtuko

da lurraldeotako bertsozale gazteen topaleku. Aurretik ere izango da sailkapen saiorik. Bizkaian ere maiatzean izango da Eskolartekoa. Lau saioeren ostean, hilaren 30ean izango da finala. Araban egun bi hartu ohi dira, adin ezberdinetako gazteentzat. 14-18 urte bitartekoek maiatzaren 23an ospatuko dute Eskolarteko jaia, Legutition, Bertsoa Bizi Gazte Egunaren baitan. Gazteagoek ekainaren 6an ospatuko dute, Zigoitin.

Eskolartekoaren helburua gazteei bertsoan aritzeko tokia eskaintzea da. Alde batetik, etorkizuneko bertsolari eta bertsozaleak trebatzeko plaza sortzen da eta, bestetik, gazteen arteko harreman sarea osatzea. Hastear da gazteen bertso jasa!



JON MARTIN ETXEBESTE
Oartzun, 2020-I-05

Harrera familia gisa izandako esperientzia

Doinua: Abokatuak deitu berri dit

Argi da bera ez zela gure odol berarekin jaio baina aldegin, aldegin zuen etorri baino alaio. Bi urte hauek pasatu eta joan da lasai, arraio nahiz motiboak ulertzen igual ez den ibiliko iaio. Hitz bakan batzuk ikasi zitun ta haien artean "aio" eta batzutan maite denari joaten utzi behar zaio.



Otsailaren 28an hasiko dira eskolarteko saioak. / XDZ

BertsoZalea berripaperak digitalera **egingo du salto**

Eskuartean edo pantaila aurrean duzun berripaper honek bertso digitalera jauzi egingo du laster; besteak beste, paperaren erabilera murriztea ekarriko du.

Bazkideoi, erakundeoi eta hedabideoi iristen zaizuen BertsoZalea berripaper hau bertso digitalean argitaratuko da 2020ko apiriletik aurrera. Paperezko bertsoa espresuki eskatzen duzuen bazkideoi soilik helaraziko zaizue.

Arrazoiak askotarikoak dira. Besteak beste, gizarte erantzunkizunari dagokionez, paperaren erabilera murriztea da asmo nagusia, ingurumenarekiko begirunez. Gainera, paper eta bidalketa kostua beste proiektu batzuetara bideratzeko aukera ekarriko du digitalerako bilakaerak.

Datuak eguneratzeko bideak

Oraindik datuak eguneratu gabe badituzu, BertsoZalea berripapera zure helbide elektronikoan jasoko duzula ziurtatzeko, gure ohiko bideen bidez egitea gomendatzen dizugu. Horretarako, idatzi bertsozale@bertsozalea helbidera

edo deitu ezazu Bertsozalea Elkartera eta eguneratu zure e-posta, hilabetero BertsoZalea zure postontzi digitalean jaso dezazun.

Apiriletik aurrera ere gure berri izaten jarraituko duzu hilabetero, bertsoari buruzko albistez beterik iritsiko diren BertsoZalea berripaperen bitartez. Betikoa, baina bertso digitalean.



Paperaren erabilera murriztuko du digitalerako jauziak. / XDZ

Historiako emakume bertsolarien bilduma **egingo dugu Hitzetik Hortzeran**

Denboraldi bukaerarako gai erakargarria dakar Hitzetik Hortzerak: historiako emakume bertsolarien gaia landuko dugu. Otsailaren 23an hasi eta gaiari buruzko zazpi atal emitituko dira.

Mamitsu dator negua Hitzetik Hortzeraren jarraitzaileontzako. Duela gutxi arte ezkutuan izan den emakume bertsolarien gaia landuko da zazpi ataletan. Zertzelada historikoak eman go dira eta bertso hautatuak entzuteko aukera ere izango da.

XV. mendetik datoz emakume bertsolariei buruzko lehen erreferentzia historikoak, orduko hiletariak isilarazteko Foru Arauetatik. XIX. mendean Lore Jokoetako irabazle izan ziren Erdozio, Hargain eta Etxegarai, baina ez dugu ekitaldi haietako bertsoen berririk.

Hitzetik Hortzera entzungo dugun bertsoen hautaketa XIX. mendean eta 1940 arte jaiotako bertsolarien bertso bilduma da. 15 bertsolari biltzen dira: Lasturko Milia, Gabriela Lohitegi, Bizenta Mogel, Maria Luixa Erdozio, Marie Hargain, Añe Etxegarai, Hondarrabiko Joxepa, Joxepa Antoni Aranbarri, Martzelina Lopetegi, Joxepa Inaxi Elizegi, Mikaela Elizegi, Plazida Otaño, Joxepa Zubeldia, Inaxi Etxabe, Luzia Goñi eta Leoni Etxebarren. Horien 16 bertsoaldi hautatu ditugu Hitzetik Hortzerarako, bat-batekoak zein bertso jarriak. Molde anitzeko bertsoaldiak dira, gainera: emakume bertsolari biren artekoak, emakumeek hainbat gaiari kantatuak edo jarriak, gizonezko eta emakume arteko dialektikak, edota emakumezkoen erantzunak, zenbait gizonezko jarritako bertsoei.

Gozatze moduko atalak datoz!



Plazida Otaño bertsolaria. / XDZ

13 talde eta ia 100 parte hartzaile, Bardoetan

Hasi da Nafarroako taldekako bertso txapelketa: 2020ko Bardoak. Urtarrilaren 31n hasi zen egitasmoa eta martxoaren 28 izango da finala, Lizarran.

Auzolana eta talde lana oinarrian, horixe da Bardoen esentzia. Urtarrilaren 31n hasi zen egitasmoa eta martxoaren 28ko finalera bidean, guztira, 20 saio izango ditu. Finala Lizarran egingo da eta, lehiatzarago, Nafarroako bertsozaleen eta euskal kulturaren festa handia izango da.

Bere xumean, handia da 2020ko Bardoak egitasmoa. 96 parte hartzaile izango dira guztira: bertsolariak, gai-jartzaileak, antolatzaileak, sukaldariak... Heltuak eta gazteak, herri batekoak eta besteak, beterranoak eta hasiberriak, Nafarroako bertso ekosistemarako hauspo eta elkargune izango dira Bardoak. Kopuruek ongi erakusten dute Nafarroako bertso mugimenduaren osasuna.

Aurtengoa bosgarren edizioa izango da eta berrikuntzekin dator. Oraingoan, talde parte hartzaileen herriez gain, beste sei herri batu dira saioak jasoko dituztenen zerrendara eta, bertan izango dira, txapelketako sei finalurrekoak. Modu ho-

rretan, bertsoa Nafarroako ahalik eta bazter gehienetara eramateko apustuari eutsi dio Nafarroako Bertsozale Elkartek.

2012an sortu zen Bardoak, Nafarroako bertso-eskolen sarea indartzeko asmoarekin. Orduetik, bi urtean behin antolatzen da. Horrela, bertsozaleen beste modu batera lantzeko aukera ematen du egitasmoak, bertsolari eta bertsozaleen harrobia sustatuz, gune eta plaza berriak barneratuz eta molde parte hartzaileak praktikan jarriz.

Finalurrekoak:

Otsailak 29: Tutereta eta Aniz

Martxoak 6: Atarrabia

Martxoak 7: Tafalla

Martxoak 14: Goizueta eta Jaunsarats

Finala

Martxoak 28: Lizarra



96 parte hartzaile arituko dira Bardoak ekimenean. / XDZ

Bertso Udalekuetako hezitzaileen izen-ematea, martxan!

Begirale, sukaldari zein zuzendari izateko izen-ematea zabalik dago eta begirale praktikak egin nahi dituztenek ere otsailaren 24a baino lehen eman beharko dute izena.

Egutegiak neguan gaudela dioen arren, udako planak egiteko proposamenarekin gatoz oraingoan: Bertso Udalekuen prestaketekin hasita gaude!

Gazteen izena emateko epea zabaldu aurretik, gazteen bidelagun lanean arituko diren txandak bete behar ditugu. Otsailaren 24ra bitarte (egun hau barne), begirale, zuzendari edota sukaldari aritu nahi duten interesdunek izena emateko aukera izango dute, baita begirale praktikak egin nahi dituztenek ere. Horretarako, dagokion izen emate orria bete beharko du hezitzaileak www.bertsozale.eus atarian dagoen formularioa betetz. Txanden inguruko informazioa ere badago gunean bertan.

Hezitzaileok maiatzaren 9an Amasa-Villabonako Subijana etxean izango den prestaketa saioan hartu beharko dute parte nahitaez.

Behin izena emanda, apirilaren 3a baino lehen ezagutaraziko da nortzuk izan diren hautatuak eta nola osatu diren taldeak.

Gazteen izen ematea, martxoan

Parte hartzaileen izen-ematea martxoaren 2tik 16ra arte izango da eta, beti bezala, lehentasuna izango dute bertso-eskolako kideek edota gurasoetako bat Bertsozale Elkarteko bazkide dutenek; eta martxoaren 18tik 30era arteko epea izango dute gainerako gazte interesdunek.



Puntu jarrita

JOANA ZIGANDA OLANO

Egoera aldatzeko zirrikiturik baden galdetu didazu Estitxu, noski baietz, batzuetan estuagoa eta besteetan zabalagoa dirudiena. Ausardiak, hitz eginez, maitasunez eta elkarlanean zabaltzen ari dena. Zirrikituaren beste aldean sare bat ageri da, azken urteetan gero eta sendoagoa, behar dugun bakoitzean eutsi eta bultzada bat emateko prest.

Hala uste dudalako aritu naiz Nafarroako bertso munduko emakume topaketaren antolaketa iratirekin batera. Zirrikitu horretatik argia sartzen da baina oraindik badago zer egina. Elkartu ginen, elkartuko gara eta elkartzen jarrai dezagun.

Helduen bertso eskolako bertsolaria naiz, hogeita hamar urte nituela lehen aldiz gurutzatu nuen bertso eskolako atea. Bertan ikasi dut, gozatu dut, kantatu dut etabertan lagun asko egin ditut, oso onak gainera. Baina urteak pasa ditut emakumeekin kantatzea zer den jakin gabe, urteak helduen bertso eskolako emakume bakarra izanik. Zenbait momentutan bakardade sentazioa izan dut, satelite sentazioa.

Bertso eskolan hasi eta ustekabeen mikrofonoa, oholtza, Bardoak eta... txapelketa, begiradak, epaia, aurrejuzkua, iritziak, espektatibak. Guzti honen aurrean zein izanda nire bat-bateko erantzuna? Txikitatik azalean zizelkatuta daramadana, poliki-poliki arintzen ikasten ari naizena: autoexijentzia. Begirada konplizez, besarkadez, irrifarrez, saio osteko solasaldiez eta ahizpatasunez hasi naiz emozio zurrumbilo horri hitzak jartzen. Konturatu naiz ez naizela ni, ni bakarrik, zerbait orokorragoa dela eta era berean zehatzagoa, urteetan errepikatu den zerbait, pertsona askok, emakume askok, bizitzen dutena.

Ez dago arrazoi bakarra emakume bertsolarien topaketan parte hartzeko, eta denok badugu arrazoi bera: urratsak eman dira baina oraindik bidea luzea da oholta parekidea izateraino.

"Besteen begitan bikaina izateko adinean" hasi nintzen, halakoak baitira nire adineko emakume bertsolariak, bikainak. Bertsoak pozak, jolasak, gozamenak, harrotasuna, indarra eman dizkit, baina urrutiko bikaintasunak itzal luzea du batzuetan.

Ainara leregi, sentitu duzu halakorik noizbait?

Koplak

Pello Mari Otaño ikerketa beka sortu da Aiztondoko bertsolaritza ikertzeko

Aiztondoko bertsolaritza buruzko ikerketa bultzatu eta haren dibulgazioa egiteko sortu da Pello Mari Otaño ikerketa beka. Kilometroak Kultur Elkarteak eta Mintzola Ahozko Lantegiak deitu dute ikerketa beka, Zubimusu Ikastolaren eta Hernandorena Kultur Elkartearen babesarekin. Deialdi honetan, bertsolaritza eta emakumea Aiztondon ikergaia helburu duten ikerketa proiektuak lehenetsiko dira. Apirilaren 2ra arte aurkez daitezke proiektuak.

Poto-Finixa



Plazara abiatuko dugu Bizkaian gazteen plazaratzea bultzatzeko

Gazteen plazaratzean eragin eta beraien arteko saretzea bultzatzeko sortu da Plazara ekimena Bizkaian. 1996tik 2002ra bitartean jaiotako bertsolariak hartuko dute parte hileroko antolatuko diren saioetan. Ekimenaren berezitasuna parte hartzaileak beraiek antolatzaileak izango direla da. Antolatzaile-bertsolariak zozketaz kantatuko dute saioetan, eskualdeko bertsolari bat egongo dela bermatuz.



PUBLIZITATEA